

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUAREN DOKUMENTUEN KUDEAKETA (Zeharkakoa)	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0455		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Eraikuntza metalikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Hodi industrialen diseinua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Eraikuntza metalikoko produktueterako dokumentu teknikoak (Zeharkakoa).	Iraupena	170
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Eraikuntza metalikoetako irudikapen grafikoa (Zeharkakoa)		50
	Dokumentu teknikoak prestatzea, fabrikazio mekanikorako CAD-CAM programak erabiliz (Zeharkakoa)	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1148_3ko LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin: ERAIKUNTZA METALIKOETAKO PRODUKTUEN DOKUMENTU TEKNIKOAK EGITEA.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Fabrikazio mekanikoko produktuen txosten teknikoa egitea.

EI1.1 Garatutako produktuak erabiltzeko eta haien mantentze-lanetarako behar diren jarraibideak eta eskuliburuak aplikazio informatikoak erabiliz egitea.

EI1.2 Proiektuaren txostena egitea, memoriak, planoak, eskemak, muntaketa-planoak eta mantentze-lanetarako jarraibideak sartuz.

EI1.3 Proiektuaren informazio grafikoa eguneratzeko prozedurak eta dokumentazioaren kudeaketa deskribatzea.

EI1.4 Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeko kontuan izan beharreko arauak buruzko txostena egitea.

Edukiak

1. Erabiltzaile-mailako informatika-ezagutzak.

- Testu-prozesadoreak: Testu-fitxategiak sortzea.
- Datu-baseak.
- Kalkulu-orriak.
- Aurkezpenak.
- Web-orriak.
- Internet garapen profesionalerako.

2. Dokumentu-kudeaketa.

- Dokumentuak eguneratzeko prozedurak:
 - Produktuen dokumentuen ordena, sekuentzia eta egituraketa.
 - Kalitate-eskulibururako dokumentu-ekarpenak (trazabilitatea, prozesuak, prozedurak...).
 - Proiektuaren txosten teknikoa.
 - Memoria.
 - Planoak.
 - Materialen zerrenda.
 - Baldintza-agiria.
 - Aurrekontua.
- Proiektu baten informazioaren antolaketa:
 - PDM/PLM sistemaren kontsulta.
 - Produktuaren datuen, bertsioen eta jakinarazpenen kudeaketa.
 - Produktuaren kudeaketa bizi-ziklo osoan.
- Produktuaren erabilera-eskuliburua:
 - Erabilera-eskuliburua.
 - Mantentze-lanetarako jarraibideak.
 - Produktuari aplikatu beharreko araudia (CE marka, segurtasuna eta birziklapena).

- Dokumentuak eguneratzeko prozedurak.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Trebakuntza-atal hau egiteko, UF0606 gainditua izan behar du: Eraikuntza metalikoetako irudikapen grafikoa eta UF0454: Dokumentu teknikoak prestatzea, CAD-CAM programak erabiliz, fabrikazio mekanikorako.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Hodi industrialen diseinua.